

## "GESTIOKO MAILA ERTAINEKO TEKNIKARIEN (KIROLAK)" LAN POLTSA 15/04/16

Jarraian 2 ariketa teoriko-praktiko izango dituzue; **ARIKETA HORIETAKO BAT BESTERIK EZ** da erantzun/garatu behar. **ADIERAZ EZAZUE GARBI ZEIN AUKERATU** duzuen erantzunen orrian. Ez ahaztu erabilitako orriak zenbatzea. **Ez idatzi azterketako orrietan azterketagilea identifikatuko duen daturik.** Ordu eta erdi izango ditu azterketagile bakoitzak azterketa egiteko. Proba egiteko ordu eta erdiko epea izango duzu. Epaimahaiak 6 puntu emango ditu, gehienez ere, eta, gutxien delarik, 3 puntu beharko dira proba gainditzeko

### **1. ariketa teoriko-praktikoa: UPV/EHUren herri-lasterketa bat antolatzea:**

Deskriba ezazu zer urrats egin behar lituzkeen Unibertsitateko Kirol Zerbitzuak unibertsitateko kideei eta gizarte osoari zabalik legokeen 10 kilometroko herri-lasterketa bat antolatzeko. Lasterketa udalerrri bateko hiri-ingurunean barrena egingo litzateke, eta 500 parte-hartzaile lituzke gehienez. Aurretiko antolaketa, lasterketa-egunari dagokiona eta lasterketaren ondoren egin beharrekoak deskribatu behar dituzu.

### **2. ariketa teoriko-praktikoa: UPV/EHUren campus arteko txapelketa bat antolatzea.**

- 1.- Kirol hauetan antolatu behar da:
- a.- Gizonezkoen futbola
  - b.- Gizonezkoen eta emakumezkoen saskibaloia
  - c.- Emakumezkoen areto-futbola
  - d.- Gizonezkoen eta emakumezkoen 7ko errugbia
  - e.- Gizonezkoen banakako tenisa

2.- Hiru campusek (Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa) elkarren kontra jokatuko duten lehiaketa bat da: taldekako kirolean, campus bakoitzeko talde batek eman du izena, salbu emakumezkoen saskibaloian (ARABAK ez du parte hartuko) eta gizonezkoen 7ko errugbian (GIPUZKOAK ez du parte hartuko). Tenisean, campus bakoitzaren ordezkari batek hartuko du parte.

Eman ezazu programazio bat, txapelketaren alderdi guztiak kontuan hartuko dituen, eta kontuan izanik, halaber, UPV/EHU halako txapelketek dituzten ezaugarriak eta txapelketa goiz bakar batean egin beharrekoa dela.